

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LARRAULGO UDALA

Iragarkia

Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araugintza Erregelamenduaren 41.18 artikulua betetzearren, Udalbatzarrak 2021eko martxoaren 25ean ospatutako ohiko bilkuran hartutako akordioaren arabera, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren 2021. urteko errolda onartu zen. Orain errolda hori jendearen agerian jarriko da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez. Halaber borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri ematen da, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzekoak, 78. artikulua eskatu bezala.

- a) *Jendearen agerian dagoen tokia:* Idazkaritza bulegoak.
- b) *Aztertze epea:* Hilabetekoa, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.
- c) *Ezadostasuna agertzeko epea:* Hilabetekoa, b) hizkian adierazi bezala, aurkeztu beharra dagoen berraztertze errekurtsoa aurkeztuz.
- d) *Errekurtsoa aurkeztu behar saion organoa:* Alkatetza.
- e) *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko Sarrera Erregistroa, bulego orduetan.
- f) *Errekurtsoa aurkeztearen ondorioak:* Aipatutako foru arauak 14. artikuluko 2. zenbakian agindutakoak.
- g) *Ordaintzeko epea:* Borondatez ordaintzeko epea: 2021eko apirilaren 1etik ekainaren 7ra.
- h) *Ordaintzeko era:* Aurrezki kutxa eta banketxeen bidez, edo Udaletxeko Bulegoetan.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko errekar-gua, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

Larraul, 2021eko apirilaren 6a.—Maite Arana Perez, alkatea.
(2350)

AYUNTAMIENTO DE LARRAUL

Anuncio

Aprobado por acuerdo del Pleno de la Corporación de 25 de marzo de 2021 (conforme al art. 41.18 del ROF), el padrón anual de 2021 del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, se somete a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 14.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa. Asimismo se señala el plazo y forma de recaudación voluntaria que requiere el art. 78 del Decreto Foral 27/1991, de 9 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Todo ello conforme a las siguientes reglas:

- a) *Lugar donde está de manifiesto:* En las dependencias de Secretaria.
- b) *Plazo para examinarlo:* Un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
- c) *Plazo de manifestar la disconformidad:* Un mes computado en la forma que se indica en el extremo b), mediante la interposición del preceptivo recurso de reposición.
- d) *Órgano ante el que se recurre:* Alcalde.
- e) *Lugar de presentación de reclamaciones:* Registro de Entrada del Ayuntamiento en horas de oficina.
- f) *Efectos de la interposición del recurso:* Los dispuestos en el art. 14.2 de la Norma Foral citada.
- g) *Plazo de recaudación:* En período voluntario, del 1 de abril a 7 de junio de 2021.
- h) *Modo de ingreso:* En entidades y cajas de ahorro o dependencias del Ayuntamiento.

Bien entendido que si en el expresado plazo de recaudación no se hacen efectivas estas deudas serán exigidas por el procedimiento ejecutivo y se incrementarán con el recargo de apremio, los intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Larraul, a 6 de abril de 2021.—La alcaldesa, Maite Arana Perez.
(2350)